

2020ko OTSAILAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **2 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2020ko otsailaren 27an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Oihane Delgado Pita ad.
Bilkura hasita:	Begoña Olaizola Elordi and.
Ez da etorri	Patxi Elola Azpeitia jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2020ko URTARRILAREN 21eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=1>

2020ko urtarrilaren 21eko osoko bilkuraren akta-zirriborroari dagokionez, idazkariak adierazi du akats bat zegoela Zarautz-Lur SA udal sozietatearen gastuen eta sarrerren laburpenean eta, ondorioz, aurrekontu bateratuaren laburpenean. Akatsa jada zuzenduta, honela zehaztuta geratu da:

2020. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA

1) UDALA

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	8.000.110,00
2	Zeharkako zergak	500.000,00
3	Tasak eta bestelako zergak	5.374.224,00
4	Transferentzia arruntak	18.576.005,00
5	Ondare sarrerak	110.500,00
6	Inbertsio errealak besterentzea eta hirigintzako jarduerak eragindako beste diru-sarrera batzuk	4.158.159,40
7	Kapital transferentziak	16.500,00
8	Finantza aktiboak	30.000,00
9	Finantza pasiboak	0,00
	Guztira	36.765.498,40

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	11.600.698,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	15.068.449,50
3	Finantza gastuak	73.910,58
4	Transferentzia arruntak	4.398.718,68
5	Kreditu globalak eta beste ustekabeak	30.000,00
6	Inbertsio errealak	4.018.550,00
7	Kapital transferentziak	300.000,00
8	Finantza aktiboak	30.000,00
9	Finantza pasiboak	1.245.171,64
	Guztira	36.765.498,40

1) ZARAUTZ-LUR

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
3	Tasak eta bestelako zergak	123.383,32
4	Transferentzia arruntak	210.000,00
	Guztira	333.383,32

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	172.244,10
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	160.139,22

3	Finantza gastuak	1.000,00
	Guztira	333.383,32

3) UDAL AURREKONTU BATERATUA

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	8.000.110,00
2	Zeharkako zergak	500.000,00
3	Tasak eta bestelako zergak	5.497.607,32
4	Transferentzia arruntak	18.576.005,00
5	Ondare sarrerak	110.500,00
6	Inbertsio errealak besterentzea eta hirigintzako jarduerak eragindako beste diru-sarrera batzuk	4.158.159,40
7	Kapital transferentziak	16.500,00
8	Finantza aktiboak	30.000,00
9	Finantza pasiboak	0,00
	Guztira	36.888.881,72

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	11.772.942,10
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	15.228.588,72
3	Finantza gastuak	74.910,58
4	Transferentzia arruntak	4.188.718,68
5	Kreditu globalak eta beste ustekabeak	30.000,00
6	Inbertsio errealak	4.018.550,00
7	Kapital transferentziak	300.000,00
8	Finantza aktiboak	30.000,00
9	Finantza pasiboak	1.245.171,64
	Guztira	36.888.881,72

Udalbatzarrak, aho batez, adierazitako aldaketarekin akta onartzea ERABAKI DU.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2020ko urtarrilaren 16tik otsailaren 21era.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=2>

Segidan, Alkatetzak 2020ko urtarrilaren 16tik otsailaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 17ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- ZARAUZKO UDALERRIKO IKASTETXEEI ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA. 2020. URTERAKO OINARRI BEREZIAK.

Espedientea: 2020L9990001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=4>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak)
Botoak aurka	–	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Zarauzko udalerriko ikastetxeei eskolaz kanpoko jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko Hezkuntza Departamentuak martxan dituen azken oinarriak 2012koak dira, 2012ko urriaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (189 zk.) argitaratuak.

Orain, Hezkuntza Departamentuak proposamen bat aurkeztu du dirulaguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2020ko otsailaren 13an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDALERRIKO IKASTETXEEI ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETARI, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena

den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- 2020. urterako Oinarri Bereziak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

**ZARAUZKO UDALERRIKO IKASTETXEEI ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA EGITEKO
DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.
2020. URTERAKO OINARRI BEREZIAK.**

1. Helburua
2. Eskaerak
3. Prozedura
4. Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak
5. Zuzkidura eta aurrekontuko partida
6. Ebazpena: Organo eskudunak eta jakinarazpen-epea.
7. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea (*kontabilitateko liburuak eta erregistroak, epeak eta forma, ordainketa aurreratua...*)
8. Dirulaguntzen abonua eta aurrerakinak
9. Publizitatea
10. Araudia

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da Zarauzko udalerriko irakaskuntza arautuko zentroek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Ikastetxeek garatutako eskolaz kanpoko ekintzak eta programen interesa bat etorriko dira **Hezkuntza Departamentuaren** programen helburuekin, betiere Udal Eskola Kontseiluari kontsultatu ondoren.

Dirulaguntza hauek eskola-batzordeek bultzatutako jarduerak finantzatzeko sortu dira, eta hezkuntza-eskaintza osatzea dute helburu.

Espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira irakaskuntza arautuko ikastetxeak ez diren erakunde guztiak.

Honako helburuak dituzten eskolaz kanpoko ekintza hauek egiteko eskatu ahal izango dira dirulaguntzak:

1. Eskola-komunitatearen (ikasleak, irakasleak, gurasoak) bizikidetzan hobekuntza ekar dezaketenak.
2. Ikaslearen kreatibitatea, gaitasun pertsonalak eta autoestimua bultzatzen lagunduko dutenak.
3. Giza eskubideen eta bakearen kulturaren defentsa bultzatzera bideratutakoak.
4. Ohitura osasuntsuak bultzatzera bideratutakoak: elikadura, higiena, kirola, aisia, sexu-harremanak.
5. Gizarte-gaietan parte-hartzeko eta inplikatzeko kultura (asoziazionismoa, elkartasuna, kultur integrazioa, auzolana...) bultzatzera bideratutakoak.
6. Lan-arriskuen prebentziora bideratutakoak.
7. Ingurumenarekiko sentsibilizatzaera bideratutakoak.

Egingo diren jarduerak beren helburuen artean beti izan beharko dute eskolako giroa hobetzen laguntzea.

Dirulaguntzak eskolaz kanpoko ekintza hauek egiteko eskatu ahal izango dira:

- Euskal kulturarekin lotutako jarduerak, hala nola folklorea eta gorputz-adierazpena.
- Zarauzko udalerriko ezaugarri nagusiak ezagutzeko jarduerak.
- Hezkuntza Departamentuak Udal Eskola Kontseiluari entzun ondoren onartu eta baimendutako beste guztiak.

Diruz lagundutako jarduerak koordinatzea eta ikuskatzea Hezkuntzako Udal Ordezkaritzari dagokio.

2. ESKAERAK

Eskolaurre, LH, DBH eta Zikloetarako eskolak ematen diren Zarauzko irakaskuntza arautuko ikastetxeek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak. Legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak izan behar dute, behar den IFZ eduki eta beren jarduerak Zarauzko udalerrian garatu. Halaber, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Udal honetako betebeharrak egunean izan beharko dituzte.

Eskaerak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- **Hezkuntza Departamentuaren urteko deialdian** zehazten den eskabide ofizialaren eredia betez egin beharko dira.
- Programa edo jardueraren ordezkari edo pertsona arduradunak dirulaguntza eskatzeko inprimaki ofizialaren gelaxka GUZTIAK beteko ditu.

Udaletxeko Erregistro Orokorrean hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontaktzen hasita:

- Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Zerbitzua)
- Udal zerbitzu telematikoak.

Eskaerarekin batera Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorreko 14. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztuko da.

3. PROZEDURA

Dirulaguntzak emateko prozedura Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

4. DIRULAGUNTZARAKO IRIZPIDEAK

1. Dirulaguntzak emateko ondorengo puntuak hartuko dira kontuan, eta eskaerarekin batera doan memoria labur batean egiaztatu beharko dira:

- Jarduera zentroaren urteko planaren eta hezkuntza-proiektuaren barne hartuta egotea.
- Programa eta hezkuntza-kalitatea optimizatzea.
- Udalerria sustatzea.
- Ikasleen prestakuntza eta garapen pertsonala.
- Zentroak euskararen erabilera sustatzea.
- Genero-ikuspegia txertatzea, emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia desberdinak kontuan hartuta.

2.- Banaketa ikastetxeko aktibitateetan parte hartu dutenen kopuruaren araberakoa izango da.

Dirulaguntza osoaren %70 derrigorrezko hezkuntzan banatuko da eta %30, besteetan.

3.- Diru-laguntzak dagokion partidaren aurrekontu-esleipenen gehieneko mugaraino emango dira.

4.- Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundutako jarduera modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira, eta horien onarpena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

5. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Hezkuntza Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

6. EBAZPENA

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Hezkuntza Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen departamentuko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordeteeekin bat etorritik.

Jakinarazpen-epea

Dirulaguntzak emateko jakinarazpen-epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

7. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Hezkuntza Departamentuaren urteko deialdian ezartzen den epean aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

1. Justifikazio-kontua
 - o gastuaren frogagiriak ekarrita
 - o ikuskariaren txostena ekarrita
 - o sinplifikatua
2. Moduluka egiaztatzea
3. Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du barne:

1. Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **jarduera-memoria** bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
2. **Memoria ekonomiko** bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituen:
 - a. **Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat**, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.

Urteko edo ikasturte oso bateko dirulaguntzen kasuan, dirulaguntza kobratuko den kontu-korronte/euskarriko mugimendu guztien xehetasuna aurkeztuko da, hain zuzen ere, diruz lagundutako epealdian egindakoa.
 - b. Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako **gastuaren frogagiriak**, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
 - c. Diruz lagundutako **jardueraren kostu orokor edota zeharkako kostuak** aldeztu aurreko portzentaje edo kantitate zehatz baten bidez konpentsatuko dira, justifikatu beharrik izan gabe.
 - d. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten **beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatu bat**, zenbatekoa eta beren jatorria adierazten dituen.
 - e. Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua erabiliz gero, aldeztu aurretik ezarriko da justifikaziorik behar izango ez duen goren muga (portzentajea) edota kopurua. Goren muga edota kopuru zehatza Hezkuntza Departamentuaren urteko deialdian ezarriko da.

Orobat, joan-etorrien, mantenuaren eta abarren gastuak modulu bidez justifikatu beharko direla erabaki da. Modulu horien zenbatekoak Hezkuntza Departamentuaren urteko deialdian onartuko dira.

8. DIRULAGUNTZEN ABONUA ETA AURRERAKINAK

Dirulaguntzen abonua Zarauzko Udaleko Ordenantza arautzailean ezarritakoari jarraiki egingo da.

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa, **aurrez behar bezala justifikatutako eskaera eginda**. Nolanahi ere, azken zatiaren abonua egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da.

Dirulaguntzaren abonua ikastetxeek eskolaz kanpoko jarduerak egiteagatik ordaindu beharrekoa kontuan izan gabe egingo da.

9. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioen edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz.

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko Hezkuntza Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

10. ARAUDIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA.

5.- GAZTERIA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientea: 2020WWW0002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=5>

Gai zerrendako puntu honetan, batzarburu jaunak jakitera eman du herritarrek ekarpenak aurkeztu dituztela espedientea parte-hartze prozesuan egon den epean, eta horiek kontuan hartzekoak direla.

Hori horrela, mahai gainean utzi dute aztergaia, hurrengo osoko bilkuran aztertzeko.

6.- UDALERRIAN TAXI-BUS ZERBITZUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA

Espedientea: 2020U9920001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=6>

Udalerrian garraio publikoa sustatzeko proposamen bat da TAXI-BUS ZERBITZUA, herrigunetik kanpo dauden auzoko bizilagunei zerbitzua eman nahi diena, herritar hauei ere mugikortasuna errazteko asmoz. Gaur egungo autobus zerbitzuaren eragina herriko gunera mugatzen da. Inguruan dauden auzo guneeetara zerbitzu honekin iristea ekonomikoki bideragarria ez denez, Taxi-bus zerbitzua azken honen osagarri izan nahi du. Baita ere garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten pertsonen edo mugitzeko urritasuna duten pertsonen laguntzeko.

2008ko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA onartu zuen. Taxi-bus zerbitzua bultzatzeko dirulaguntzen deialdia egin aurretik, berariazko ordenantza onestu behar da oinarri orokorrak eta berariazko oinarriak zehazteko.

Bai Legean, bai Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako dirulaguntzen modalitateen artetik, zuzeneko emakida bidezko prozedura bideratzea dagokio. Prozedura horren arabera, lehendabizi dirulaguntzak emateko baldintzak eta prozedurak arautzeko oinarriak onartu behar dira. Dirulaguntzak banaka emango dira,

eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaerak jaso ahala eta aurrekontu baliabideen mugarekin.

Aurrekoa ikusita, eta Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, bertan dauden 19 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, aho batez, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Zarauzko hirigunetik kanpo geratzen diren auzoetako bizilagunentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat 2020. urtean TAXI-BUS ZERBITZUA bultzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena.- 5.000 euroko gastu-konpromisoa baimentzea, dirulaguntza deialdiari aurre egiteko, ondoko partidaren kontura: 1.0901.471.03.441.20.2020.

Hirugarrena.- Oinarriak, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

UDALERRIAN TAXI-BUS ZERBITZUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Oinarria. Dirulaguntzen xedea

1.1. Udalerrri barruko garraio publikoa sustatzeko ekintza bat da, eta helburua du herrigunetik kanpo dauden auzoei garraio zerbitzua ematea eta bere bizilagunei mugikortasuna erraztea.

Zerbitzua erabili ahal izango dute eremu hauetako batean erroldatuta dauden herritarrek: Zarauzko udalerriko lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa duten eremuetan bizi direnek, eta Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko eremu hauetan erroldatuta dauden herritarrek ere bai: 19 (Talaimeendi), 24 (Errotaberri), 25 (Astierreka), 26 (Astazubi) eta 27 (Errotazar). Horretarako bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, autobus geltokia beren etxebizitzetatik 500 metro baino gehiagora egotea eta, bestetik, zerbitzuren maiztasuna 70 minututik gorakoa izatea.

1.2. Herriko autobusak egiten duen ibilbidearen barruan garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten pertsonen zerbitzu hau erabiltzeko aukera emango zaie, autobus zerbitzuak ezin dituztenean bete bere mugikortasun beharrak. Kontzeptu horretan sartuko dira, baita ere, garraio publikoak erabiltzeko zailtasunak daudela ebazteko baremoaren barruan, 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskineko A), B) eta C) letretan sartuta daudenak (abenduaren 23koa, ezgaitasun gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa).

1.3. Lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:00etara bitartean egindako garraio zerbitzuetara mugatuko dira dirulaguntza horiek.

Zerbitzua eskatzeko ordutegia goizeko 9:00etatik arratsaldeko 18:00etara izango da, eta deia, ahal dela, zerbitzua erabili aurreko egunean egingo da. Telefonoa: 943-13.19.52

1.4. Zerbitzuaren hasiera eta bukaera erabiltzaileak nahi duena izango da, betiere udalerrri barruan egiten bada, eta zerbitzu horrek ez du derrigorrez autobus-geltokian hasi edo bukatu beharrik izango.

2. Oinarria. Onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrek 11. artikuluan xedatutakoaz gain (dirulaguntza baten onuradun izateko betekizun eta debeku orokorrak), laguntza hauen onuradun izango dira Zarauzko Udaleko taxi-lizentzia duten pertsonak.

Ezgaitasuna duten pertsonentzat ibilgailu egokituak dituzten taxi-gidariak ere onuradun izan ahal dira, baldin eta zerbitzua Zarauzko Udalerriaren barruan ematen baldin badute, eta oinarri hauetan jasotako baldintzetan. Aukera hori zabalduko da soil-soilik Zarauzko taxi-gidariak zerbitzu hori ematerik ez dutenean.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiaren arabera, dirulaguntzaren onuradunak euskaraz egingo dio harrera zerbitzuaren erabiltzaileari, eta ondoren bezeroak hautatutako hizkuntzan jarraituko du (euskaraz edo gaztelaniaz).

3. Oinarria. Eskaerak aurkezteko tokia eta modua

3.1. Dirulaguntzen eskaera udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztuko da. Eskaerarekin batera, deialdian bertan zehaztuko den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.2. Eskaeran edo eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan identifikazio-datuak falta badira, akatsik egin bada edo osatu gabe badago, orduan, eskatzaileari eskatuko zaio dagoen akats hori 10 eguneko epean zuzen dezala, urriaren 1eko 39/2015 Legeak – Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak – 68.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskatzaileak akatsa zuzentzen ez badu, eskaeran atzera egindakotzat joko da, horretarako ebazpena aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan eman ondoren.

4. Oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Udalak bonuak banatuko ditu laguntza hauek errazago eman ahal izateko.

5. Oinarria. Finantza-baliabideak.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzetarako finantza-baliabideak ondorengo aurrekontu-partidatik ordainduko dira, esleitutako diru kopurua amaitu arte: 1. 0901.471.03.441.20 2020.

6. Oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa eta balorazio irizpideak

- Dirulaguntzak emateko bonu sistema erabiliko da. Interesdunek eskaera egingo dute deialdian jasotzen den baldintzetan, eta 10 bidaiari egiteko bonu bat jasoko dute dohainik. Tiket bakoitzak bi zati izango ditu. Zerbitzuaren ondoren, taxi-gidariak zati bat jasoko du eta bidaiariak gorde egin beharko du beste zatia.
- Taxi-zerbitzua ematerakoan, erabiltzaileak egiaztagiri bat emango dio gidariari eta egindako ibilbidea ordaindu egingo du (=autobusaren tarifa arruntaren balioa).
- Udalerriko herrigunearen barruan egindako taxi-zerbitzua 9,00 euroko prezioan aurreikusi da, eta udalerriko herrigunetik kanpo egindakoa 15,00 euroko prezioan. Horietatik 2,00 euro bere gain hartuko ditu taxi-gidariak.
- Udalak dagokion kopurua ordainduko dio taxi-zerbitzua eman duenari, emandako zerbitzuen justifikazioa aurkezten duenean: Zerbitzu bakoitzarentzat aurreikusitako prezioari kendu egingo zaio erabiltzaileak ordaindutako bidaiaren prezioa (=autobusaren tarifa arrunta) eta taxi-gidariak bere gain hartutako kopurua.

7. Oinarria. Bonuak eskuratzeko prozedura

- Bonu eskatzailea herriko autobusak egiten dituen ibilbideetatik kanpo geratzen diren eremuetan erroldatua egon beharko da (1.1 atalean zehaztutakoaren arabera).
- Ezgaitasuna edo mugikortasun urria duten pertsonak bonuak eskatu ahal izango dituzte, Zarautzen erroldatuak badaude eta 1.2 atalean adierazitako ezgaitasun maila badute.
- Herritar bakoitzak gehienez ere 14 bonu eskatu ahalko ditu eta ezingo da bonurik eskatu aurreko bonua eskatu zenetik astebete pasatu arte.
- Mugikortasun Departamentuak begiratu egin beharko du ea bonu eskatzaileak bete egiten ote dituen bonua emateko oinarri hauetan jasotako baldintzak.
- Baldintzak bete egiten dituela egiaztatutakoan, interesdunak Herritarren Arreta Zerbitzuan jasoko du bonua.

8. Oinarria. Dirulaguntzen ebazpenak

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak egiteko eskumena Alkatetzak izango du.

9. Oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

Dirulaguntzaren bat jasotzen duen edozein onuradunek bete egin beharko ditu Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 20. artikuluan ezarritako betebeharrak eta oinarri hauetan jasotakoak.

10. Oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunakoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, baldin jasotako guztiarekin diruz lagundutako jarduketaren kostua gainditzen ez bada, eta bildutako beste dirulaguntzen oinarri arautzaileek horri buruz agindu dezaketenari kalterik egin gabe.

11. Oinarria. Dirulaguntzak ordaintzea

11.1. Garraio zerbitzua eman duen pertsonak eskaera eta dokumentazio osagarria aurkezten dituenean ordainduko da dirulaguntza.

11.2. Eskaerak hilero aurkeztuko dira, zerbitzua eman eta hurrengo hilabeteko lehenengo astean. Salbuespenez, 2020ko bonuak aldatzeko azken eguna 2021eko urtarrilaren 31 izango da.

12. Oinarria. Baldintzak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea

Oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu pertsona onuradunak, dirulaguntza jasotzeko eskubidea erabat edo hein batean galdu duela adieraziko da, eta gainera jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko du, baita diru kopuruoi dagozkien berandutze interesak ere. Dirulaguntzak emateko eskumena duen organoak hartuko du horri buruzko erabakia.

13. Oinarria. Araubide juridikoa

Dirulaguntza horiek oinarri arautzaile hauek arautuko dituzte: Zarauzko Udaleko Dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorra (GAOn 2008ko uztailaren 22an argitaratu zena); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa; eta horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

7.- ZARAUZKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020. URTERAKO.

Espedientea: 2020DDDD0001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=7>

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, 8.1 artikuluan ezartzen du herri administrazioek dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituztela hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantza bideak; betiere, aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzearen baldintzapean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatutako artikulua oinarritzkoa dela eta herri administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Bestalde, legezko mandatua betetzeaz gain, beste zio eta arrazoi batzuk daude plan estrategikoa idaztea aholkatzen dutenak; adibidez, eraginkortasun eta efizientzia mailak hobetzea dirulaguntzako gastu publikoan, herritarrek errazago izatea dirulaguntzak lortzeko bidea, berme handiagoa lortzen baita gardentasunean, bai eta horri buruz udal kudeaketaren arrazoizko erabilera ere, dagokion plangintza globalaz, prozeduren sistematizazioaz eta emaitzei buruzko ebaluazioaz.

Hori guztia kontuan hartuta eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, bertan dauden 19 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- 2020. urterako Zarauzko Udalaren DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA onartzea.

Bigarrena.- Onartutako Plana udal web-orrian argitaratzea.

ZARAUZKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020. URTERAKO

HITZAURREA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzei buruzkoak, 8. artikuluan betebeharrak ezartzen die herri administrazioei: DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKO batean zehaztu beharko dituzte hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantziario-iturriak; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen baldintzapean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak esaten du aipatutako artikulua oinarritzat dela eta herri administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Bestalde, lege horren hamahirugarren xedapen gehigarriak adierazten du erregelamenduzko lege-arauetan aurreikusitako herri politikei buruzko Planak eta Egitarauak dirulaguntzen plan estrategikotzat hartuko direla.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzei buruzkoak, hamazazpigarren xedapen gehigarrian esaten du Kontu-hartzailetzaren zeregina dela plan estrategikoen aplikaziotik ondorioztatutako emaitzak kontrolatzea eta ebaluatzea.

Azkenik, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III kapituluko 1. atalak plan estrategikoen printzipioak, eremua, edukia, onartzeko-kompetentzia eta jarraipena arautzen ditu 10 artikuluan eta hurrengoetan; baita ez betetzeek izan ditzaketen ondorioak ere.

Arauzko eta legezko agindu hori betetzeko, Zarauzko Udalak DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA onartzen du; hauek dira bere artikulua:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Zarauzko Udalak denboraldian zehar emango dituen dirulaguntzeki ondorengo arauak beteko dituzte: dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, bere araudia, dirulaguntzen emakida arautzen duen udal ordenantza, plan estrategiko hau, sinatzen diren hitzarmenak, eta dirulaguntzen urteroko deialdietako oinarriak.

2. artikulua.

Dirulaguntzak emateko beharrezkoa izango da aldeztatik urte bakoitzeko udal aurrekontuetan diru-esleipenak sartuta egotea eta dagokion deialdia eta emakidaren oinarri arautzaileak onartzea.

3. artikulua.

Dirulaguntzak emateko beharrezkoa izango da aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzea. Hortaz, onartzen diren aurrekontu-esleipenak eta emakidaren oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira une oro.

4. artikulua.

DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKO hau onartzeak ez du esan nahi eskubideren bat sortzen dela balizko onuradunen alde; eta, beraz, horiek ezingo dute eskatu kalte-ordainik edo konpentsaziorik, baldin eta Udalak Plana bere horretan praktikan jartzen ez badu.

5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

Publizitatea eta lehia askea, aurrez egindako deialdiaren bidez. Deialdian bermatuta egongo dira objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehia eta berdintasuna (fondo publikoen banaketan); eta hori guztia, emakida zuzena egiteko aukerari utzi gabe. Emakida zuzenak, araudi aplikagarrian jarritakoaren arabera, aldez aurretik dagokion aurrekontu-esleipena eduki beharko du.

- Deialdian aurrez jarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, horrela bermatzen baita balizko onuradunek irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela.
- Eraginkortasuna, jarritako helburuak betetzerakoan; eta efizientzia, baliabide publikoak esleitzera koan. Hortaz, kantitatearen eta kalitatearen aldetik justifikatu beharko da.
- Kontrolatzea eta aztertzea dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak bat datozela berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin, diruz lagundutako jardueretan.
- Eta, berariaz, une oro egiaztatzea Plan Estrategikoaren egokitasuna. Hau da:
 - o Plana ikuspegi sozialetik justifikatzea.
 - o Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
 - o Gaitasuna finantzarioa.
 - o Udalak arlo horretan duen eskumena azaltzea.

6. artikulua.

Aurrekontu zuzkidura egokia eta nahikoa egotearen mende daude dirulaguntzen programak.

Dirulaguntzak eman edo emakida zuzenak (hitzarmenak) egin aurretik, gastua onartu beharko da, Zarauzko Udaleko aurrekontu-arauetan aurreikusitako moduan.

Dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren arauak edo oinarri arautzaileak onartu beharko dira.

7. artikulua.

Planean eta haren eranskinetan zerrendatuta datoz Zarauzko Udalak kudeatu beharreko dirulaguntzen lerro edo programa guztiak.

Dirulaguntza lerro edo programa bakoitzean hauek zehazten dira:

- Programaren deskribapena
- Gaia
- Lortu nahi diren helburuak
- Emakida mota (lehia, hitzarmena...)
- Aurreikusitako kostuak
- Finantziazioa

8. artikulua.

Dirulaguntzak ematen dituen departamentu bakoitzak bere eranskina du, eta horiek egituratzen dute plan hau.

9. artikulua.

Finantziazioa Udalaren funts propioen bidez egingo da (Udalaren aurrekontuko laugarren eta zazpigarren kapituluaren kontura); dena den, laguntza ekonomikoa eskatu ahal izango zaie beste erakunde batzuei, dirulaguntza-lerro bakoitzarekin zerikusia duten jarduerak egiteko argitaratzen dituzten deialdien barruan.

II. KAPITULUA

DIRULAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

10. artikulua.

Zarauzko Udalak bi helbururekin emango dizkie dirulaguntzak pertsoneri, elkarteei edo entitate pribatuei: onura publikoko edo interes sozialeko jarduerak bultzatzeko edo udal eskumeneko helburu publikoak sustatzeko.

11. artikulua.

Zarauzko Udalak urtero dirulaguntzak jarriko ditu, hainbat udal dirulaguntza-lerrotan, ondorengo eskumen-arloetan: kultura; euskara zerbitzuak; hezkuntza; udaltzaingoa; gazteria; gizarte zerbitzuak; herrilan, azpiegitura eta zerbitzuak; hirigintza eta ingurumena; agenda 21; kirolak; turismoa eta alkatetza.

III. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA. EMAITZEN AZTERKETA

12. artikulua.

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, dirulaguntzak ematen dituzten departamentuek txosten arrazoitu bat eskatuko diete onuradunei. Txostenean honako hauek jasoko dira: batetik, zein ekintza zehatz egin diren, eta diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarri eragin dien, eta bestetik, lortutako helburuak justifikatuko dira.

13. artikulua.

Zehazki, informazio hau jasoko da:

- Laguntzaren helburua.
- Erakunde onuraduna eta, hala badagokio, erakunde laguntzailea.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Emandako dirulaguntzaren bidez garatutako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Diruz lagundutako ekintzen edo programen diru-sarreraren eta gastuen xehetasuna, frogagiri edo faktura eta guzti.
- Lortu nahi ziren helburuak eskuratzeko garatutako ekintzen egokitasunaren eta asebetetze-mailaren balorazioa. Baloratu egingo da, baita, egokia ote den programa jarraitzea edo, bestela, aldatzea edo kentzea.

14. artikulua.

Alkateak kontrolatuko du plan hau betetzen dela, indarrean dagoen bitartean.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Alkateak memoria bat aurkeztu beharko du Zuzendaritza Taldean. Memorian honakoak jaso beharko dira gutxienez: a) planaren betetze-maila; b) lortu nahi ziren helburu eta ondorioetan dirulaguntzek izandako eraginkortasuna eta efizientzia; c) ondorioak; eta d) hurrengo Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunen proposamena.

Udal kontu-hartzaileak kontrolatu eta ebaluatuko ditu Plan Estrategikoaren aplikazioaren ondorioz lortutako emaitzak.

Aurrekoari utzi gabe, dirulaguntzen tramitazioaz arduratzen diren unitate administratiboetako arduradunek espedienteetan jasota utziko dute, txosten idatzi egiaztatu baten bidez, garapen edo tramite fase guztietan bete direla udal akordioak hartzeko legez eskatzen diren betebeharrak (eskabideak onartzea, horiek baloratzea, emakidaren proposamena egitea, eta laguntzen bukaerako justifikazioa eta likidazioa).

I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: ALKATETZA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 0001.481.01.912.00 2020 (3991) EKITALDI BEREZIAK	18.730,00	Alkatezari interesgarri iruditzen zaizkion aurreikusi gabeko jarduerak egiteko dirulaguntzak / Zarauzko eragileen ekimenak babestu eta bisitariak erakarri	2020
1 0001.481.03.912.00 2020 (6111) DIRULAGUNTZAK:ALOKAIRUAK	150.000,00	Hutsik dauden etxebizitzaren parkea alokairuko merkatura atera, eta herritarrei alokairurako dirulaguntzak eman / Alokairua bultzatuz, herritarrei orokorrean eta gazteei bereziki etxebizitza eskuratzeko lagundu	2020

II. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 0503.480.02.231.31 2020 (5984) DIRULAGUNTZAK: NORBANAKOAK	175.000,00	Baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonentzako edo familientzako udal laguntzak, gizarte zerbitzuen sistema publikoek babesten ez dituzten beharrei aurre egiteko, edo horiek osatzeko	2020
1 0503.480.01.231.31 2020 (5983) GIZARTE BEHARRETARAKO LAGUNTZAK	270.000,00	Prestazio ekonomiko ez aldizkakoak, Eusko Jaurlaritzak araututakoak, baliabide urriko pertsonak egin behar dituzten gastu espezifikoei aurre egiteko	2020
1 0503.480.03.231.31 2020 (6485) DIRULAGUNTZA: CARITAS	6.000,00	Hainbat laguntza-zerbitzu eskaintzea herritarrei; adibidez, erakunde publikoek babestu ezin duen edozein pertsonari laguntza, edo beharra duen zarauztar orori laguntza	2020
1 0503.480.04.231.31 2020 (6486) DIRULAGUNTZAK: GURUTZE GORRIA	3.500,00	Udalerrian hainbat laguntza-zerbitzu eskaintzea herritarrei: adibidez, Gizarte Zerbitzuen jardueren baitan jasotako zerbitzu-eskaerei erantzutea, laguntza humanitarioko kanpainak sustatzea, Udaleko Gizarte Zerbitzuen programetan lankidetzan aritzea, eta lehen sorospeneko ikastaroak antolatzea	2020
1 0503.480.05.231.31 2020 (6487) DIRULAGUNTZA: ZURRUMURRU SAREA	1.500,00	Zarauzko udalerrian arrazakeriari eta xenofobiari aurre hartzeko estrategia garatzea, eta baliabideak eskaintzea.	2020
1 0503.480.06.231.31 2020 (6488) DIRULAGUNTZAK: IZAN FUNDAZIOA	2.500,00	Droga-mendekotasun arazoak dituzten Zarauzko familiei esku-hartze programak eskaintzea	2020
1 0503.480.07.231.31 2020 (6489) DIRULAGUNTZA: NAGUSILAN	2.500,00	Udalerrian hainbat zerbitzu eskaintzea: elikagaien banaketa, akonpainamendua, boluntariotzaren sustapena	2020
1 0503.480.08.231.31 2020 (6490) DIRULAGUNTZA: DYA	10.700,00	Zarautzen hainbat laguntza-zerbitzu eskaintzea: prebentzio eta laguntza zerbitzua, kirol-jardueretan eta haurrentzako ekitaldietan. Orokorrean, herritarren larrialdietan laguntzea, Udaleko Gizarte Zerbitzuen programetan lankidetzan aritzea, eta lehen sorospeneko ikastaroak antolatzea	2020
1 0503.480.10.231.81 2020 (5985) DIRULAGUNTZAK: EUSKAL FONDOA	25.000,00	Hegoaldeko herri pobretuetan garapenerako proiektuak finantzatzea	2020-2021
1 0503.481.01.231.31 2020 (6491) TRANSFERENTZIAK: GIZARTE-ENTITATEAK	35.988,00	Gizarte Zerbitzuen esparruan lana egiten duten elkarreentzako dirulaguntzak	2020
1 0503.481.06.231.81 2020 (5988) DIRULAGUNTZAK: KOOPERAZIOA	223.500,00	Garapenerako lankidetzako proiektuetarako lau dirulaguntza lerro daude: 1. Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapen proiektuak egiteko dirulaguntzak. 2. Zarauzko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak egiteko dirulaguntzak. 3. Ekintza humanitario eta puntualetarako proiektuak egiteko dirulaguntzak. 4. Gazte kooperanteentzako dirulaguntzak.	2020-2021 2020 2020 2020
1 0507.481.01.337.10 2020 (5147) DIRULAGUNTZAK: IÑURRITZA ELKARTEA	4.000,00	Jarduera kulturalak, aisialdikoak eta partaidetzakoak antolatzea, IÑURRITZAko jubilatua eta pentsionistentzat	2020

1 0507.481.02.337.10 2020 (5148) TRANSFERENTZIAK: JUBILATUEN ELKARTEA	19.500,00	Jarduera kulturalak, aisialdikoak eta partaidetzakoak antolatzea, UDABERRIko jubilatue eta pentsionistentzat	2020
---	-----------	--	------

III. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: KULTURA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 0608.480.01.334.30 2020 (4744) SORKUNTZARAKO BEKAK	9.000,00	Zarauzko Udalak antolatutako sorkuntza bekaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.480.00.334.30 2020 (4751) DIRULAGUNTZAK: LITERATURA ETA BERTSOLARITZA	6.500,00	Zarauzko Udalak antolatutako literatura eta bertsolaritza lehiaketak finantzatzea	2020
1 0608.481.00.334.30 2020 (4752) DIRULAGUNTZAK: KULTUR JARDUERAK NORGEHIAGOKA	26.000,00	Zarauzko irabazi asmorik gabeko kultur erakundeei beraien kultur proiektuen eta urteko programen garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.01.334.10 2020 (4753) DIRULAGUNTZAK:HAUSPOZ	5.000,00	Hauspoz elkarteari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.02.334.10 2020 (4754) DIRULAGUNTZAK: ZARAUTZ ABESBATZA	27.250,00	Zarautz Abesbatzari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.02.334.30 2020 (5155) DIRULAGUNTZA: LITERATURIA	18.000,00	Euskal literaturaren inguruko jardunaldien garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.03.334.30 2020 (4755) KULTUR ELKARTRUKEAK ETA SENIDETZEAK	10.000,00	Zarauzko irabazi asmorik gabeko erakundeei beren senidetze-proiektuen eta programen garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.04.334.10 2020 (4756) DIRULAGUNTZAK:ZARAUZKO SCHOLA CANTORUM	23.500,00	Zarauzko Schola Cantorum abesbatzari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.05.334.30 2020 (4758) DIRULAGUNTZA BEREZIAK	5.000,00	Irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei aparteko jardueren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.08.334.20 2020 (4760) DIRULAGUNTZAK: ARTEZALEAK	90.620,00	Artezaleak elkarteari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.08.334.30 2020 (4761) DIRULAGUNTZAK:ZARAUTZON	5.000,00	ZarautzOn elkarteari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.09.334.30 2020 (4762) DIRULAGUNTZAK:ZARAUZKO ARGAZKIZALE ELKARTEA	5.000,00	Zarauzko Argazkizale Elkarteari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.10.334.30 2020 (5156) DIRULAGUNTZAK:GARO	6.000,00	Garoari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.13.333.30 2020 (4763) DIRULAGUNTZAK:PHOTOMUSEUM	51.875,00	Photomuseumi urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.13.334.30 2020 (5611) DIRULAGUNTZA:ALPROJA	5.000,00	Alprojari urteko programaren garapena finantzatzea	2020
1 0608.481.15.334.10 2020 (4764) DIRULAGUNTZAK: ZARAUZKO MUSIKA BANDA	27.500,00	Zarauzko Musika Bandari urteko programaren garapena finantzatzea	2020

1 0608.481.17.334.30 2020 (4765) DIRULAGUNTZA:EUSKO IKASKUNTZAREN JARDUERAK	500,00	Eusko Ikaskuntzaren bazkide kuota	2020
---	--------	-----------------------------------	------

IV. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: EUSKARA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 0701.471.01.335.00 2020 (4317) DIRULAGUNTZA UROLA KOSTAKO HEDABIDEAK	39.000,00	Udalerrian euskarazko hedabideak sustatzea eta bultzatzea	2020
1 0701.471.03.335.00 2020 (4318) DIRULAGUNTZA UROLALDEKO KOMUNIKABIDEAK	39.000,00		
1 0701.481.01.335.00 2020 (4319) DIRULAGUNTZAK EUSKARAREN SUSTAPENA	47.000,00	Udalerrian euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea (euskarazko ikasteko laguntzak; euskararen esparruko pertsonen edo elkarteien hainbat programa eta jarduerak egiteko laguntzak; herriko establezimenduei errotuluak, irudi korporatiboak eta web-guneak euskaraz jartzeko laguntzak)	2020
1 0701.471.02.335.00 2020 (5618) DIRULAGUNTZA EUSKALTZALEAK	5.000,00	Euskaltzaleen Topaguneari dirulaguntza	2020

V. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: HEZKUNTZA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 0801.481.01.323.00 2020 (5168) DIRULAGUNTZA:ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK	35.000,00	Eskola komunitatearen bizikidetzaren hobetzea; ikasleentzako sormena, gaitasun pertsonalak eta autoestimua bultzatzen laguntzea; giza eskubideen eta bakearen kulturaren defentsa; ohitura osasuntsuak ezartzea; gizarte gaietan parte hartzea eta inplikazioa; ingurumenarekiko sentsibilizazioa. Eskola eta herria uztartzea	2020
1.0801.481.02.323.00.2020 (5169) IKASLAGUN IRAKASKUNTZA- LAGUNAK	3.500,00	Boluntarioz osatutako talde honek laguntza eskaintzen die arazo ekonomiko eta akademikoak dituzten ikasleei	2020

VI. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: UDALTZAINGOA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 0901.471.03.441.20 2020 (5180) LANDALURREKO GARRAIO ZERBITZUA	5.000,00	Udalerrin barruko garraio publikoa sustatzeko ekintza bat da, eta helburua du herrigunetik kanpo dauden auzoetako garraio zerbitzua ematea eta bere bizilagunei mugikortasuna erraztea	2020
1 0901.480.01.135.00 2020 (5181) DIRULAGUNTZA: ZINGIRA	4.100,00	Aurreikuspen, prebentzio eta plangintza programak garatzea, eta Udalen antolatutako jaietan eta ekitaldi sozialetan, katastrofe naturaletan, suteetan, ondorio larriko istripuetan edo antzeko beste gertakarietan sortzen diren	2020

		larrialdietan jarduerak egitea, bere laguntza beharrezkotzat jotzen denean	
--	--	--	--

VII. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: GAZTERIA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 1001.481.01.337.21 2020 (6020) DIRULAGUNTZAK:HAUR KULTUR TALDEA	2.800,00	Haur Kultur Taldea - Txurruka	2020
1 1001.481.02.337.20 2020 (4417) TRANSFERENTZIAK: ELKARTEEN SUSTAPENA	37.000,00	Elkarteei laguntza: sustapena, kideen prestakuntza eta material inbentariagarria	2020
1 1001.481.06.337.20 2020 (4418) TRANSF.:GAZTEEN PROIEKTUAK GAUZATZEKO	20.000,00	Nerabeei eta gazteei laguntzak, beren proiektuak egiteko (maketak, antzezlanak, ekintzailletza, zabalkundea, etab.)	2020

VIII. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 1102.481.02.172.00 2020 (4810) ARKAMURKA	9.000,00	Dirulaguntza izenduna, herrian dagoen ingurumen arloko elkarte bakarrari. Herriko ingurumenaren ezagutza eta zaintza sustatzea	2020
1 1101.771.01.153.00 2020 (6024) ERROTABERRI	300.000,00	Laguntza ematea Errotaberrin jarduera ekonomikoak martxan dituzten industriei, sektoreko hirigintza-kargei aurre egiteko. 2010eko urriaren 7an, 7 enpresari onartu zitzaizkien laguntzak	2020

IX. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: AGENDA 21

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 1201.481.02.924.00 2020 (4455) DIRULAGUNTZAK: VISTA ALEGRE	3.000,00	AUZOAK KOHESIONATU, BIZITU ETA DINAMIZATU: urtero interes handiko hainbat egitasmo antolatzen dira, auzoko izaera indartzeko	2020
1 1201.481.03.924.00 2020 (4456) DIRULAGUNTZAK: MITXELENA	3.000,00	AUZOAK KOHESIONATU, BIZITU ETA DINAMIZATU: Udalak harreman zuzena du Mitxelena auzoan aspaldi eratu zen auzo-elkartearekin. Horregatik, urtero helburu horrekin dirulaguntza zuzen bat ematen zaie, baina inoiz ez zaie ordaindu, egindako gastuen frogagiriak ez dituztelako aurkezten.	2020
1 1201.481.04.924.00 2020 (4457) DIRULAGUNTZAK:ITSASMENDI	3.000,00	AUZOAK KOHESIONATU, BIZITU ETA DINAMIZATU: urtero interes handiko hainbat egitasmo antolatzen dira, auzoko izaera indartzeko	2020

X. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: BERDINTASUNA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 1301.480.02.231.50 2020 (5199) DIRULAGUNTZAK	15.000,00	Parekidetasun Departamentuak era estrukturalen garatzen dituen jarduera, programa eta proiektuen osagarri diren jarduerak antolatzeko dirulaguntzak.	2020

XI. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: KIROLA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 1401.471.01.341.02 2020 (6040) DIRULAGUNTZA: SALBATORE	10.953,00	Ikastetxeari ematen zaion dirulaguntza, Foru Aldundiaren eskola kiroleko E1 programaren ildoak Urola Kostan gauzatzeko eta egitura, kudeaketa-baliabideak eta ikasturteko jarduerak ziurtatzeko	2020
1 1401.471.02.341.02 2020 (6041) DIRULAGUNTZA: LA SALLE	8.215,00	Ikastetxeari ematen zaion dirulaguntza, Foru Aldundiaren eskola kiroleko E1 programaren ildoak Urola Kostan gauzatzeko eta egitura, kudeaketa-baliabideak eta ikasturteko jarduerak ziurtatzeko	2020
1 1401.471.03.341.02 2020 (6042) DIRULAGUNTZA: ANTONIANO	6.236,00	Ikastetxeari ematen zaion dirulaguntza, Foru Aldundiaren eskola kiroleko E1 programaren ildoak Urola Kostan gauzatzeko eta egitura, kudeaketa-baliabideak eta ikasturteko jarduerak ziurtatzeko	2020
1 1401.471.04.341.02 2020 (6043) DIRULAGUNTZA: OROKIETA	7.984,00	Ikastetxeari ematen zaion dirulaguntza, Foru Aldundiaren eskola kiroleko E1 programaren ildoak Urola Kostan gauzatzeko eta egitura, kudeaketa-baliabideak eta ikasturteko jarduerak ziurtatzeko	2020
1 1401.471.05.341.02 2020 (6044) DIRULAGUNTZA: LIZARDI	6.213,00	Ikastetxeari ematen zaion dirulaguntza, Foru Aldundiaren eskola kiroleko E1 programaren ildoak Urola Kostan gauzatzeko eta egitura, kudeaketa-baliabideak eta ikasturteko jarduerak ziurtatzeko	2020
1 1401.481.01.341.03 2020 (6045) DIRULAGUNTZA: ZARAUTZ	30.000,00	Elkarteak kirol-ibilbide guztietan arrauna sustatzeko antolatzen dituen eskaintzak, jarduerak eta ekimenak egiteko laguntza	2020
1 1401.481.02.341.03 2020 (6046) KIROL EGITASMOAK OROKORREAN	8.000,00	Zarauzko kirol klub eta elkarten urteko kirol-eskaintza garatzeko laguntzak	2020
1 1401.481.03.341.03 2020 (6503) DIRULAGUNTZA: TRIATLOI TALDEA	20.000,00	Elkarteak kirol-ibilbide guztietan triatloia sustatzeko antolatzen dituen eskaintzak, jarduerak eta ekimenak egiteko laguntza; besteak beste, Zarauzko triatloi proba	2020
1 1401.481.04.341.06 2020 (6504) KIROL EGOKITUAREN GIPUZK.	15.000,00	Gipuzkoako kirol egokituaren federazioari ematen zaion dirulaguntza, dibertsitate funtzionala duten herritarren kirol-eskubideak ziurtatzeko	2020
1 1401.481.05.341.03 2020 (6049) DIRULAGUNTZA: ZARAUTZ KIROLO	160.000,00	12 modalitate hauek kirol-ibilbide guztietan garatzeko dirulaguntza: xakea, atletismoa irristaketa, pilota, squasha, halterofilia, herri-kirolak, eskubaloia, saskibaloia, futbola eta errugbia	2020

1 1401.481.06.341.03 2020 (6050) DIRULAGUNTZA: SOCIEDAD	10.000,00	Elkartek kirol-ibilbide guztietan txirrindularitza sustatzeko antolatzen dituen eskaintzak, jarduerak eta ekimenak egiteko laguntza; besteak beste, txirrindularitza probak	2020
1 1401.481.07.341.03 2020 (6051) DIRULAGUNTZA: ZIKLOTURISTA	8.000,00	Elkartek kirol-ibilbide guztietan zikloturismoa sustatzeko antolatzen dituen eskaintzak, jarduerak eta ekimenak egiteko laguntza; besteak beste, Haimar Zubeldia zikloturista proba	2020
1 1401.481.08.341.03 2020 (6052) DIRULAGUNTZA: BALEA	15.000,00	Elkartek kirol-ibilbide guztietan igeriketa sustatzeko antolatzen dituen eskaintzak, jarduerak eta ekimenak egiteko laguntza; besteak beste, Getaria-Zarautz zeharkaldia	2020
1 1401.481.09.341.03 2020 (6053) DIRULAGUNTZA: JIRA BIRA	3.000,00	Elkartek errendimenduzko ibilbidean txirrindularitza sustatzeko egiten duen jarduerarako laguntza	2020
1 1401.481.10.341.03 2020 (6505) DIRULAGUNTZA: PAGOETA MENDI	6.000,00	Elkartek mendizaletasuna sustatzeko antolatzen dituen ekintzetarako laguntza (irteerak, Pagoeta Eguna, Mendi Astea eta beste zenbait ekimen)	2020

XII. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: TURISMOA

Partida eta programaren deskribapena	Aurreikusitako urteko kostuak	Helburua	Epea
1 1501.481.01.430.00 2020 (4551) DIRULAGUNTZA: MURKIL	12.000,00	Merkataritza sustatzea, Murkil elkartearen kanpainak eta laguntza teknikoa indartzuz	2020
1 1501.481.02.430.00 2020 (4553) DIRULAGUNTZA: ZUREKIN	30.000,00	Ostalaritza eta, bereziki, ostalarien elkartearen ekitaldiak bultzatzea, eta laguntza teknikoa indartzea	2020
1 1501.481.05.341.01 2020 (6060) DIRULAGUNTZA: GIPUZKOAKO SURF FEDERAZIOA	50.000,00	Zarauzko Munduko Surf Txapelketaren garapena bultzatzea	2020
1 1501.481.09.338.00 2020 (4557) DIRULAGUNTZA: A.E.K.	3.100,00	Herriko agenda eta tradizioa indartzea, San Tomas azokaren antolaketaren bitartez	2020

8.- ZARAUZKO UDALAREN ARAUGINTZA PLANA 2020. URTERAKO.

Espedientea: 2020III0008

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=8>

39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 132 artikuluan ezartzen du Udalak urtez urte araugintza plan batean zehaztu beharko dituela hurrengo urtean onestekoak diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.

Udal departamentuek egindako proposamenak oinarri hartuta, Zarauzko Udalak Araugintza Plana egin du 2020. urterako.

Hori guztia kontuan hartuta eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, bertan dauden 19 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum" arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- 2020. urterako Zarauzko Udalaren ARAUGINTZA PLANA onartzea.

Bigarrena.- Onartutako ARAUGINTZA PLANA udal web-orrian argitaratzea.

ZARAUZKO UDALAREN 2020. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honakoa dio 132 artikuluan:

“Arau-plangintza.

- 1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak.*
- 2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”*

Udal departamentuek egindako proposamenekin bat etorritik, Zarauzko Udalaren Araugintza Plan hau egin da 2020. urterako, honako edukiarekin:

A) **ANTOLAKUNTZA ARLOA**

A.1. **KONTU-HARTZAILTZA - DIRUZAINTZA**

A.1.1. ORDENANTZA OROKORRA, TRIBUTUEN ETA TOKIKO ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUEN KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKAPENA ARAUTZEN DUENA (berria)

Justifikazioa:

Ordenantza honen xedea da:

- Tributuak eta tokiko zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa hobetu eta sinplifikatu dezaketen prozedurazko alderdiak arautzea.
- Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren alderdiak arautzea, errepika ez daitezen.
- Udalak zehaztu edo garatu behar dituen gaiak arautzea.
- Herriarrak informatzea bai indarrean dauden arauak eta prozedurez, bai zergadunen eskubideez eta bermeez, informazio horren berri izatea interes orokorrekoa izan daitekeelako zerga-obligazioak behar bezala betetzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Kudeaketa arrazionalizatuz, prozedurak zehaztea eta garatzea, beti ere maila goreneko xedapenak errespetatuz, eta, bide batez, herritarrei indarrean dauden arauak eta prozeduren ezagutza erraztea.

Beste xedapen batzuk indargabetzea:

- 2010/06/30ko 0963 Dekretua: Zatikatzak eta geroratzeak.
- 2012/12/28ko 1768 Dekretua: Zorrak eta eskubideak konpentsatzea.
- 1993/01/28ko idatzia, interesak kobratzeari buruzkoa.

A.2. **KONTU-HARTZAILTZA**

A.2.1. ORDENANTZA FISKALAK (eranskinak aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza fiskalak urtero berrikusten dira honako helburu hauekin:

- Ordenantzak egokitzea, maila goreneko xedapenen aldaketetara edo berrikuntzetara.
- Diru-sarreraren maila eguneratzea edo aldatzea.
- Zerga-onurak eguneratzea edo aldatzea.
- Prozedura administratiboak eta zerga-kudeaketa arrazionalizatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Udalaren nahikotasun finantzarioaren printzipioa indartu eta mantentzea.

A.3. GIZA BALIABIDEAK

A.3.1. UDALTZAINGOAREN ARAUDIA (berria)

Justifikazioa:

58/2015 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Euskadiko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituena (EHAA 2015/05/11).

“LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

- 1. Esparru-arau hauek indarra hartu eta hiru urteko epean, udaltzaingoari buruzko araudia duten udalek esparru-arau hauetara egokitu beharko dute araudi hori.*
- 2. Esparru-arau hauek indarra hartzen dutenean udaltzaingoari buruzko araudi propiorik ez duten udalek ere hiru urteko epea izango dute beren araudia onartzeko.”*

Ekimenaren helburu nagusia:

Udaltzaingoko Departamentuaren antolaketaren eta funtzionamenduaren araudia onartzea.

A.3.2. ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIA (aldatzea)

Justifikazioa:

Araudi honetako sistema honako hauei aplikatzea: udal antolaketan une bakoitzean sortzen diren beharren arabera, lanpostuen edukietan sortutako aldaketa berezi eta salbuespenezko guztiei (egiturazko aldaketen ondoriozkoak direnak edo ez direnak), bai eta aurrerantzean sortzen diren lanpostu hutsei ere (bai plantilla handitzearen ondorioz, bai amortizazioen edo lanpostuen sorreraren ondorioz sortutakoei).

Ekimenaren helburu nagusia:

Zarauzko Udaleko enplegatu publikoei ordainsariak esleitzeko metodoa eta funtzionamendu arauak eguneratzea.

B) HERRITARREN ARLOA

B.1. HEZKUNTZA

B.1.1. ZARAUZKO UDALERRIKO IKASTETXEEI ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

Legedia eta kontzeptuak eguneratzea.

Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko irizpideak berrikustea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Eskola komunitatearen bizikidetzatza hobetzea; ikasleen sormena, gaitasun pertsonalak eta autoestimua bultzatzen laguntzea; giza eskubideen eta bakearen kulturaren defentsa; ohitura osasuntsuak ezartzea; gizarte gaietan parte hartzea eta inplikatzatza; ingurumenarekiko sentsibilizazioa. Eskola eta herria uztartzatza.

B.2. GIZARTE ZERBITZUAK

B.2.1. DIRU BALIABIDE ESKASAK DITUZTEN PERTSONEI ETA FAMILIEI BANAKAKO LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA (aldatzea)

Justifikazioa:

Legedia eta kontzeptuak eguneratzea.

Beste administrazioetatik (Foru Ogasuna) datuak eskuratzeko beharrezko aldaketak txertatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Legedia eta kontzeptuak eguneratzea. Beste administrazio batzuetatik datuak eskuratzeko beharrezko aldaketak txertatzea.

B.3. GAZTERIA

B.3.1. GAZTEEK PROIEKTUAK GAUZATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI BEREZIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

16-30 urte bitarteko nerabe eta gazteek proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdi berria egitea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Nerabeek eta gazteek dituzten proiektuetarako dirulaguntzak arautzea, egungo eskaerei egokitu.

B.3.2. ZARAUZKO UDALERRIKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO GAZTE- ETA GIZARTE-ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

Lege eta arau berrietara egokitzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntzak arautzeko dokumentuak eguneratzea.

Beste xedapen batzuk indargabetzea:

2016ko uztailearen 28ko osoko bilkuran izen berarekin onartutako oinarriak.

B.4. KULTURA

B.4.1. MODELO ARETOA ERABILTZeko ARAUDIA (berria)

Justifikazioa:

Urte hauetako eskarmentuan oinarrituta, beharrezkoa ikusten da Modelo Aretoa erabiltzeko arauak zehaztea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Modelo Aretoa erabiltzaileek jakin dezatela zeintzuk diren aretoa erabiltzeko baldintzak.

B.5. PAREKIDETASUNA

B.5.1. EMAKUMEEN* ETXEKO MAHAIAREN ERREGELAMENDUA (berria)

Justifikazioa:

EMAKUMEEN* ETXEA 2020ko martxoan irekiko da, eta bertako jarduerak eta ekimenak antolatzeko mahai bat sortzea aurreikusitako dute etxearen funtzionamendua lantzeko egindako partaidetza-prozesuan parte hartu duten emakumeek.

Beharrezkoa da sortuko den mahai horren izaera, helburuak, osaera eta funtzionamendua jasoko duen erregelamendua egitea.

Ekimenaren helburu nagusia:

EMAKUMEEN* ETXEAREN funtzionamenduan eta jardueren antolaketan emakume zarauztarren parte-hartzea arautuko duen araudia sortzea eta herritarrei helaraztea.

B.5.2. EMAKUMEEN* ETXEA ERABILTZEKO ARAUTEGIA (berria)

Justifikazioa:

EMAKUMEEN* ETXEA 2020ko martxoan irekiko da, eta herriko emakume elkarteek, eragile sozialek eta emakume zaraiztarrek euren jarduera gauzatzeko, ekitaldiak antolatzeke, elkarrekin feminismoa lantzeko eta euren artean sareak sortzeko erabiliko dutela aurreikusi da.

Hori dela eta, beharrezkoa da etxea erabiltzeko irizpideak, eskubideak eta betebeharrak jasoko dituen arautegi bat egitea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Emakume zaraiztarrek EMAKUMEEN* ETXEA erabiltzeko araudi berria sortzea eta herritarrei helaraztea.

B.6. UDALTZAINGOA

B.6.1. MERKATAL ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BATETIK KANPOKO SALMENTAREN EGIKARITZA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA (aldatzea edo berri bat egitea)

Justifikazioa:

Ordenantza berria sortu edo dagoena egokitu behar da hileko azokatik kanpo kalean egiten diren salmentak arautzeko.

Oraingo ordenantzak (1992koa) hileko azokaren ingurukoa bakarrik arautzen du.

Kale salmentak ordenantza berezi bat behar du.

Ekimenaren helburu nagusia:

Kalean egiten diren salmenta guztiak arautzea.

ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.2. OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da, 6/2015 Legegintzako Errege Dekretura egokitzeko (Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta akatsak zuzentzea.

B.6.3. ALKOHOLAREN PUBLIZITATEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da, 1/2016ko Legea eta geroko xedapenetara egokitzeko (Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.4. OSTALARITZA ETA ALKOHOLA SALTZEKO BAIMENA DUTEN MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK IREKI ETA IXTEKO ORDUEI BURUZKO ORDENANTZA. 4/1995 LEGEARI EGOKITUA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da. 10/2015 Legea (abendua 23koa, ikuskizun publiko eta jolas-jardueri buruzkoa) eta 17/2019 Dekretura (otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena) egokituko da.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.5. BAI JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, BAI JOLAS JARDUERAK ETA BAI –JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, HERRIKO JAIK EDO BESTELAKO KULTUR EKITALDIAK DIRELA BIDE – INSTALAZIO EDO EGITURA BEHIN-BEHINEKOETAN, ERAMANGARRIETAN, EDO DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DIREN SALMENTAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (Aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da. 10/2015 Legea (abenduarien 23koa, ikuskizun publiko eta jolas-jarduerei buruzkoa) eta 17/2019 Dekretura (otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena) egokituko da.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

C) LURRALDE ARLOA

C.1 HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

C.1.1. LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantzaren 3. xedapen gehigarriak ordenantza berrikustea aurreikusi zuen, indarrean hiru urte egon ondoren. Dagoeneko ia 10 pasatu dira.

Honakoak dira aztertu eta berrikusi nahi diren funtsezko atalak:

- a) Erabilera-aldaketa egiteko egokiak diren lokalak. Hasiera batean, asmoa da lokal kopurua handitzea.
- b) Beheko solairuetan etxebizitza-erabilerarekin bateraezinak diren erabilerak zehaztu. Atal honetan, bereziki, apartamentu turistikoaren gaia jorratuko da.
- c) Bizigarritasuneko baldintza teknikoak eguneratu.

Ekimenaren helburu nagusia:

Eraikita dagoen ondarea optimizatzea (lokal asko hutsik daude, hainbat guneeetan merkataritza-erabilerako merkatua txikitu egin delako), eta etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea erraztea.

Beste xedapen batzuk indargabetzea

Ordenantzaren berrikuspenez gero, indargabetu egingo da 2010eko urriaren 27ko ordenantza.

Ez da baztertzen ZHAPoren xedapen batzuk aldatu behar izatea.

C.2. HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK

C.2.1. OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK ETA ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALEK BIDE PUBLIKOAK ERABILI ETA OKUPATZEKO UDAL ORDENANTZA (berria)

Justifikazioa:

Merkataritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioa arautzea, eta ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioaren egungo araudia berrikustea.

Ekimenaren helburu nagusia:

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioa arautzea; irisgarritasuna eta espazio publikoko paisajearen balioa ere zaintzea; eta eragindako espazio publikoaren berezko erabilera bermatzea, kalitatezko ostalaritza eta merkataritza zerbitzuen harmonizazioan, antolaketan eta bultzadan oinarritutako irizpide argiekin.
- Espazio publikoan jar daitezkeen elementuak zehaztea, erabiltzaileen eta bizilagunen arteko bizikidetzaren hobetzeko.

- Establezimenduei irtenbideak ematea, oinezkoen ibilbideak errespetatzeko.

Beste xedapen batzuk indargabetzea

Bide publikoa terrazak eta mahaiekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantza (2013an onartutakoa).

9.- HIRIGINTZAKO HITZARMENA, ERROTABERRI INDUSTRIA-SEKTOREKO ETXETXO BASERRIA FINKATZEKO.

Espedientea: 2019H9890004

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=9>

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko akordioaren bidez, Zarauzko Udalak erabaki zuen jendaurrean jartzea Errotaberri sektoreko Etxetxo baserria finkatzeko hirigintza-hitzarmenaren proposamena, Errotaberriko hitzarmen-batzarrak aurkeztutakoa. Gaur egun baserria antolamendutik kanpo dago.

Proposamenaren testu osoa 2019ko abenduaren 27an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Jendaurreko erakustaldian ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak hitzarmenari buruzko txostena egin zuen. Hitzarmena gauzatzeko, plan partziala aldatu beharko da.

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, bertan dauden 19 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum" arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Errotaberriko hitzarmen-batzarraren eta Zarauzko Udalaren artean sinatu beharreko hirigintzako hitzarmena, Etxetxo baserria finkatzeko.

Abenduaren 27an argitaratutako hirigintza-hitzarmenaren testua da onartutakoa, baina ondorengo xehetasunarekin: Hitzarmenari erantsitako planoak orientagarriak dira, ez lotesleak.

Hitzarmena gauzatzeko, plan partzialaren aldaketa izapidetu beharko da, eta aldaketaren agiri horrek ezarriko du Etxetxo baserriko partzelaren behin betiko antolamendua.

Bigarrena.- Alkatetzak edukiko du hitzarmena sinatzeko ahalmena, Udalaren ordezkari gisa.

HITZARMENA

AURREKARIAK

Etxetxo baserria sendotzeari loturikoak:

Lehenengoa.- "Errotaberri" izeneko 32. industria-sektoreak hirigintza-antolamendu eta -exekuzioari dagozkion tresna guztiak ditu, behin betiko onetsita (plan partziala, hirigintza- eta birpartzelatze-proiektuak...).

Horrez gain, Zarauzko Udalak eta "Errotaberri" izeneko 32. industria-sektoreko Ituntze Batzarrak hainbat hirigintza-hitzarmen sinatu dituzte, industria-sektore horren urbanizazioa exekutatu dadila errazteko, bai haien artean (Hirigintza Proiektuaren 2. separatan jasotako obrak), bai beste administrazio publiko batzuekin (URA eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegiturretako Departamentua).

Bigarrena.- Sektorearen antolamendu xehatuak (2007ko azaroan onetsi zen Plan Partziala) antolamendutik kanpo utzi zuen Etxetxo baserria. Exekuzioaren kudeaketa-aginduetan, hau esaten zuen Plan Partzialak: "...eraisteko unea hirigintza-eta eraikingintza-baldintzek zehaztutakoa izango da".

Hirugarrena.- Udalak 2009ko urrian onetsitako Sektoreko Ituntze Hitzarmenean seigarren estipulazio bat gehitu zen, Etxetxo baserriko legezko biztanleak beste norabait eramatea arautzeko. Horren kostua 597.000 €-koa izango zela kalkulatu zen.

Laugarrena.- Etxetxo baserriaren hirigintza-planteamendua bateraezina da 2. partzelaren antolamenduaren eraginez; izan ere, horri 11.532 m²-ko azalera esleitu zitzaion. Partzela horren antolamendua horrela egin zen, hain zuzen, beharrezkoa zelako Plan Orokorreko Salberdin gunean kokatutako enpresetako bat lekualdatzea.

Bosgarrena.- Une honetan, hau da egoera:

- Salberdin sektorean dauden edo egon diren enpresetako bat ere ez da Errotaberri sektoreko 2. partzelara eramango.
- Pukas Surf enpresak industria-pabilioi bat eraiki nahi du partzela horretan.
- Enpresa horren beharrezkoak bateragarriak dira Etxetxo baserria mantentzearekin.
- Etxetxo baserria sendotzeak ez die eragiten Plan Partzialean aipatutako antolamenduko proposamen eta helburuei.
- Etxetxo baserria mantenduko balitz, nabarmen murriztuko lirakeke sektorea urbanizatzeko gastuak, eta bertan bizi diren pertsonak behin eta berriro eskatu dute.

Seigarrena.- Aurrekari horiek kontuan hartuta, Errotaberri industria-sektoreko Ituntze Batzarrak eta Zarauzko Udalak honako hauek formalizatu dituzte:

KONPROMISOAK ETA KLAUSULAK

I.- XEDEA

Zarauzko Errotaberri industria-sektorean dagoen Etxetxo baserriaren hirigintzako sendotze-lanak egitea, eta ez eraistea.

II.- ITUNTZE BATZARRAREN KONPROMISOAK:

1.- Hitzarmena sinatzen denetik bi hilabeteko epean, Errotaberri industria-sektorearen antolamendu xehatua (Plan Partziala) puntualki aldatzeko dokumentua aurkeztea Zarauzko Udalaren aurrean, baita Birpartzelatze Proiektuaren aldaketa ere, honako helburu hauekin:

2.- Beste antolamendu bat ematea industria-sektoreko 2. partzelari (Birpartzelatze Proiektuaren ondoriozko 2A eta 2B partzelak), Etxetxo baserria eraistea beharrezkoa izan ez dadin. Antolamenduak honako baldintza hauek errespetatuko ditu:

- Finken jabeekin eta 2. partzelan eraiki nahi duen enpresarekin adostuko da.
- Etxetxo baserriaren hirigintza-erregimena aldatuko du, hirigintza-antolamenduan sendotuta gera dadin.
- Indarrean dagoen hirigintza-antolamenduak 2. partzelari ematen dion azalera eraikia ez da handituko, ezta erabilera-araudia ere.
- Kontuan hartu beharko ditu ibilguak zaintzeko guneetan dauden finken egoeratik eratorritako baldintzatzaileak.
- Plan Partzialaren antolamendu berriaren eragina jasotzen duen aprobetxamendua konpentsatzea proposatuko du, Etxetxo baserria sendotu ondoren.

3.- Etxetxo baserria sendotzeko eta nekazaritzako azpiegiturak sektorearen esparrutik kanpora eramateko, honako konpromiso hauek ere hartu beharko ditu:

- Etxetxo baserriaren titularraren kontura egingo dira A eta B bideak eta goiko aldeko zelaigunea (700 m2 ingurukoa, harrobiko materialekin bete). Aldiz, Ituntze Batzarrak ordainduko ditu horiek hormigoiz estaltzeko lanak, babeserako harri-lubetak eta barandak, eta Plan Partzialeko I. bidetik goiko zelaigunearen oinera arte egin behar diren azpiegituren eraikuntza- eta instalazio-lanak (euri-uren sarea, ur beltzen sarea, ur-hornikuntza, energia elektrikoa eta telekomunikazioak), betiere erantsitako planoetan ezarritakoari jarraikiz. Zelaigune hori nekazaritzarako azpiegiturak, makinak eta lanabesak edukitzeko erabiliko da.
- Ituntze Batzarraren kontura egokituko da erantsitako planoko C bidea.
- Ituntze Batzarraren kontura egingo da baserriko eta pabiloiko ataurreen gainazalaren tratamendua; zehazki, hau egin behar da: orain dagoen zolata pikatu, hondeatu, harrobiko materialarekin bete eta hormigoizko zolata jarri.
- Ituntze Batzarraren kontura jarriko dira finkaren itxiturak, erantsitako planoaren arabekoak; zehazki, hauek jarri beharko dira: harlangaitz-hormatxo bat (70 cm ingurukoa), hormigoizko inposta eta errementaritza-itxitura (60 cm ingurukoa), baita erantsitako planoaren arabeko bi sarbide motorizatu ere (gutxi gorabehera 1,80 metroko altuerako orri bateko ate metalikoak).
- Ituntze Batzarraren kontura sortuko dira lorategi-eremuak, erantsitako planoaren arabekoak; zehazki, zolata pikatu beharko da (halakorik badago), landare-lurra jarri beharko da lur naturalaren gainean eta inguruan hormigoizko zintarria jarri beharko da.
- Ituntze Batzarraren kontura egingo da Etxetxo eraikinaren iparraldeko terraza, bat etorritz erantsi den aurrekontuko xehetasunekin. Alabaina, Etxetxo baserriaren titularrak ordaindu beharko ditu terrazaren estalkia instalatzeko eta etorkizunean hori ixteko lanak, baita fatxada birmoldatzeko lanak ere (erantsitako fatxaden planoarekin bat etorritz).

III.- ZARAUZKO UDALAREN KONPROMISOAK:

Zarauzko Udalak konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

Zarauzko Udalak lehenetsuna emango die Errotaberri industria-sektoreko Plan Partzialaren aldaketa puntualaren izapideei, baita Birpartzelatze Proiektuaren izapideei eta hitzarmen honen xedearekin lotuta proposatzen dizkioten gainerako kudeaketa-tresnen izapideei ere.

Etxetxo eraikina sendotzeak barne hartuko ditu Ituntze Batzarrak hartutako konpromisoak (II-3) betetzeko behar diren baimenak; zehatzago esanda, terraza estaltzeko baimena, eraikina jabetza horizontalaren arabera banatzeko baimena (lau etxebizitza egiteko aukerarekin), fatxaden konfigurazioa aldatzeko baimena (erantsitako fatxaden planoaren arabera) eta zelaigunean eraikuntza-elementuak instalatzeko baimena, nekazaritzako azpiegiturak, makinak eta lanabesak bertan edukitzeko.

IV.- JARRAIPEN-BATZORDEA

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta Ituntze Batzarreko ordezkari batek eta Zarauzko Udaleko beste batek osatuko dute. Hitzarmena sinatzen dutenek izendatuko dituzte ordezkari horiek, konpromisoetan zehaztutako jarduketan jarraipena egiteko eta konpromisoak betetze aldera beharrezkoak diren azalpenak eman eta zuzenketak egiteko.

V.- HITZARMENAREN ADMINISTRAIZO-IZAERA

Hitzarmena administrazio-izaerakoa da. Hortaz, administrazioaren ordenamendu juridikoari jarraituko dio.

VI.- ONDOREAK, IRAUPENA ETA IRAUNGIPENA

Hasiera batean, hitzarmenak BI URTEKO indarraldia izango du. Dena den, alderdiek hala nahi izanez gero, luzatu egingo da, baldin eta ezarritako konpromisoak guztiz exekutatu ez badira.

Hitzarmena iraungi egingo da indarraldia bukatzen denean, bertako helburuak bete direnean edo suntsitu egiten denean, alderdietako batek bere konpromisoak ez betetzeagatik. Hitzarmena suntsitu egiten bada, alderdiek zehaztuko dituzte martxan dauden obrak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

VII.- HITZARMENAREN BERRESPENA

Hitzarmen hau balioduna izan dadin, berretsi egin beharko dute Zarauzko Udaltzako eta Errotaberri sektoreko Ituntze Batzarraren Biltzarrak.

Une honetan, **Begoña Olaizola Elordi** andrea bertaratu da bilkurara.

10.- 10.2 –OR SALBERDIN – AREAREN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUKO R14 PARTZELA LEHIAKETA BIDEZ SALTZEA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA.

Espedientea: 2019HHHH0005

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=10>

2019ko azaroaren 28an egindako osoko bilkuran, 10.2 –OR Salberdin– arearen Birpartzelazio Proiektuko R14 partzela lehiaketa bidez saltzeko prozedura arautuko zuen Administrazio-klausulen Agiria onartu zuen Udalbatzarrak. Eta, horrekin batera, zegokion deialdi publikoa egin zuen.

Partzela hori udal lurzoru-ondarearen parte da. Bere xedea da babes publikoko etxebizitza hauek egitea: araubide bereziko etxebizitza tasatuak (122 inguru) eta babes ofizialeko 3 etxebizitza.

Proposamenak aurkezteko epean, eskaintza bakarra aurkeztu zen: Amenabar Etxegintza Berria SL eta Amenabar Residencial SL sozietateak (Aldi Baterako Enpresa Elkartearen eratuak).

Eskaintza aurkeztu duen enpresa bakarraren kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu zuen Kontratazio Mahaiak. Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak B eta C kartazalen edukiari buruzko txostena egin zuen.

Proposamena Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Kontratua adjudikatzeko behar diren aurretiko baldintza guztiak bete dira.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, bertan dauden 20 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Amenabar Etxegintza Berria SL eta Amenabar Residencial SL sozietateei adjudikatzea 10.2 –OR Salberdin– arearen Birpartzelazio Proiektuko R14 partzela salerosteko kontratua, aurkeztu duten eskaintzarekin bat etorriz (Aldi Baterako Enpresa Elkartearen eratuak: UTE SALBERDIN R-14 IFZ:U-75236406).

Bigarrena.- Partzelaren salmenta-prezioa 6.402.255 eurokoa izango da, zergak sartu gabe. Ordainketa honela egin beharko da:

- Prezioaren % 20, dagozkion zerga eta guzti, kontratuaren adjudikazioa jakinarazten den egunetik kontatzen hasi eta 10 egun balioduneko epean.
- Prezioaren % 80, dagozkion zerga eta guzti, salerosketako eskritura publikoa emateko momentuan (kontratua adjudikatzen denetik gehienez ere hilabeteko epean eman beharko da).

Hirugarrena.- Adjudikaziodunak udaletxean agertu beharko du kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko.

11.- ESKARI-GALDERAK

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200227&punto=11>

Ez du inork hitz egin.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko hamarrek eta bostean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.